

ENTZUMENA

1.TESTUA

Faktoria saioko elkarrizketa bat entzungo duzu.

Entzungaia bi aldiz entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean erantzun zuzena aukeratu.
0 zenbakia adibidea da.

Adibidea:

0. Nori egin diote elkarrizketa?

- a. Lide Trekuri, Askeintza Animalista elkarteko kideari.
- b. Lide Trekuri, beganoen buruari.
- c. Lide Trekuri, Askeintza Animalista elkarteko buruari.

1.- Zeintzuk dira beganoak?

- a. Animaliak esplotatzen dituztenak.
- b. Zenbait animalia esplotatzearen aurka daudenak.
- c. Animalien esplotazioarekin zerikusia duen ezer jaten ez dutenak.

2.- Zertarako sortu dute aipatutako mugimendua?

- a. Eskoletako jantokietan menu beganoak eskatzeko.
- b. Menu beganoak eskatzeko ume guztientzat.
- c. Jantokietakoak begano izatera bultzatzeko.

3.- Zer gertatu da Gasteizko eskola batean?

- a. Hezkuntza Sailak ukatu egin dio ume begano bati janari begetarianoa.
- b. Eskolak ukatu egin du janari begetarianoa jantokian.
- c. Hezkuntza Sailak janari begetarianoa bultzatu nahi du.

4.- Zergatik hasi dute protesta?

- a. Horrelako erantzunek jangelako bidea ixten dutelako.
- b. Horrelako bazterketa egitea bidezkoa ez dela uste dutelako.
- c. Jantokiak baztertu egin dituztelako.

5.- Zer eskatu diote jendeari protesta moduan?

- a. Eskolako zuzendariari idazteko protesta eginez.
- b. Hezkuntza Sailari idazteko eta oniritzia emateko.
- c. Interneten bidez Hezkuntza Sailari protesta gutunak idazteko.

- 6.- Zenbat protesta gutun bidali dituzte?
- Erdaraz berrehun bat eta euskaraz bi mila.
 - Euskaraz ia bi mila eta erdaraz berrehunetik gora.
 - Guztira bi mila eta berrehun inguru.
- 7.- Bideragarria al da eskoletan menu begetarianoa jartzea?
- Bai. Gainera, Europako herrialde askotan dago horrelako eredua.
 - Europa osoko ereduak kontuan hartuz gero, bai.
 - Bai. Europan eta AEBetan ere horrelako ereduak badaude eta.
- 8.- Gaur egun, norentzat egiten dira menu bereziak Euskal Herriko eskoletan?
- Zeliakoentzat eta alergiaren bat dutenentzat, besteak beste.
 - Musulmanentzat bakarrik.
 - Eskatzen duen guztiarentzat.
- 9.- Hezkuntza Sailak zein arrazoi eman du ezezkoa esateko?
- Begano gutxi dagoela eskolan.
 - Ez dagoela dirurik beganoentzat.
 - Begano izatea ez dagoela lehen aipatutako kasu horien barruan.
- 10.- Zer egin du familiak?
- Saiatu da bilerak egiten, baina epez kanpo.
 - Saiatu da Hezkuntza Sailarekin bilerak egiten.
 - Udalarekin hitz egiten saiatu den arren, ez du lortu.

Aukeratu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
a										